



2021/02/25EKO UDALBATZAREN OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2021/02/25
Hasiera ordua: 19:00
Amaiera ordua: 19:40

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Maria Cristina Etxenausia Irure

Iban Herrarte Arana

Oihana Ameskoa Perez

Santiago Balantzategi Beitia

Ana Maria Martiarena Arregi

Gorka Astondoa Altuna

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Juan Antonio Peña Orobengoa

Pedro Elosegui González de Gamarra

Ez bertaratuak:

- - -

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzailea, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA.	3
2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.	3
3. HASIERAKO ONARPENA EMATEA AREXOLA, ARRIOLA, BARAJUEN, SUÑA, URIBARRI ETA ZABOLA AUZOETAKO PLAN BEREZIARI.	3
4. SAMSIC IBERIA S.L.U. ENPRESAK EGINDAKO ESKAERA (2021/02/15; 162 zk.)	4
5. MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZKO ADIERAZPENA.	5
6. GALDERAK ETA ESKAERAK.	7



1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA.

Alkate-Lehendakariak 2021eko urtarrilaren 28ko ohiko bilkurako aktaren gainean inork oharririk ote duen galdetu du.

Inork akta horri buruz oharpenik ez duenez, lehendakariak akta onartzeko bozketa deitu du eta aho batez onartu da, 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Udalbatza, besterik gabe, azken ohiko bilkuratik egin diren dekretuen jakitun gelditu da (395/20tik 455/20ra eta 01/21etik 50/21era).

3. HASIERAKO ONARPENA EMATEA AREXOLA, ARRIOLA, BARAJUEN, SUÑA, URIBARRI ETA ZABOLA AUZOETAKO PLAN BEREZIARI.

Alkateak adierazten du, Plan bereziek, kasuan kasu, udalerrri oso baten edo horren zati baten antolamendua ezartzen duten hirigintza tresnak direla; lurzoru-mota bat edo batzuk barnean hartuta, edo plangintza orokorrak definitutako edo planak berak zehaztutako eremu edo area zehatz baterako, haren xedearekin bat etorritik. Kasu honetan, Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabola auzoak hartzen direla kontuan.

Udala aholkatzen duen arkitektoak egindako txostenean jasotzen dira plan berezi horiei dagozkien ezaugarri eta berezitasunak. Teknikariak behar bezala azaldu zituen azkeneko hirigintza batzordean eta, halaber, esandako hirigintza tresnen inguruan sortu ziren zalantzak argitu zituen.

Juan Antonio Peña Orobengoa zinegotziak hitza hartu eta, adierazten du, ezartzen diren arau batzuk eztabaidagarriak direla. hirigintza batzordean ere azaldu zen bezala, hirigintza tresna horiek jasotzen dituzten hainbat arau, gainera dagoen araudiak baldintzatuta dator baina, hala ere, beste ezaugarri batzuetan malgutasun handiagoa dago. Jakin nahi du, arau horiei buruz bertan eztabaidatuko den, herritarren iritzia eskutu den edo zer gertatuko den horrekin.

Iban Herrarte Arana eta Gorka Astondoa Altuna zinegotziek gogorarazten dute, zenbait kontzeptu, baldintza eta abarri ezingo zaiela heldu, aipatu den bezala, udalaz gaindiko araudiak behartuta jaso behar direlako. Haatik, hasierako onarpenera emateak ekarriko du espedientea jendaurrean jartzea eta, horrekin batera, alegazio edo iritzia aurkezteko epea irekiko da. Fase horrek, hainbat gauza benetako beharrei egokitzeko aukera emango du.

Besterik gabe, alkateak aurkeztu du Hirigintza Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

Lehena.- Hasierako onarpenera ematea Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabola auzoetako Plan Bereziari.

Bigarrena.- Honen berri ematea eragindako sektoreetan eskumenak dituzten herri-administrazioei, dagokion txostena egin dezaten.

Hirugarrena.- Iragarkia argitaratzea Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta jendaurrean jartzea espedientea 45 egunez, argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Epe horretan, espedientea erakusgai izango da udal bulegoetan, edozein interesdunek aztertu eta bidezkotzat jotzen dituen alegazioak aurkezteko.

Laugarrena.- Honen berri ematen duen iragarkia argitaratzea lurraldean hedadura handia duen egunkarian.

Bosgarrena.- Interesdunen eskura jartzea espedientea udal honen egoitza elektronikoan (helbidea: <https://www.aramaio.eus>).

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Hirigintza Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.



4. SAMSIC IBERIA S.L.U. ENPRESAK EGINDAKO ESKAERA (2021/02/15; 162 zk.).

Alkateak hitza ematen dio zerbitzuetako zinegotzia den Iban Herrarte Aranari, gaiaren inguruan egindako jarraipena aurkez dezan.

Iban Herrarte Aranak azaltzen du, SAMSIC IBERIA S.L.U. enpresak, hau da, udal eraikinak garbitzeaz arduratzen den enpresak, udalari adierazi diola ohi baino eskutako paper gehiago gastatzen ari dela eskola eraikinean, horren erabilpena eraikin horretan asko handitu omen batia eta, horrenbestez, enpresaren kostuak handitu egin direla. Horren aurrean, erabaki dutela udalari fakturatzea, paper bobinen kontsumoaren gehikuntzak eragiten dien gainkostua.

Halaber, zinegotziak adierazten du, enpresaren betebeharra dela beharrezkoa den paper kantitatea jartzea, ez dagoela mugarik horretan sinatutako kontratuarekin bat.

Ondoren, alkateak aurkezten du Zerbitzu Batzordeak Udalbatzari egiten dion erabaki proposamena:

“Ikusirik, Aramaioko Udalaren esku dauden hainbat eraikinen garbiketa zerbitzua kontratatzeke lizitazio espedientea.

Ikusirik, 2017ko azaroaren 30eko osoko bilkuraren erabakia, zeinaren bidez SAMSIC IBERIA S.L.U.ri esleitu zitzaion zerbitzua, bere proposamenaren, klausulen plegu ekonomiko administratiboaren eta teknikoaren arabera.

Ikusirik, 2020ko otsailaren 27ko eta 2021eko urtarrilaren 28ko osoko bilkuren erabakiak, kontratua luzatzen dutenak.

Ikusirik, Pablo González de Canales Domenech jaunak, SAMSIC Iberia S.L.U.ren izenean eta hura ordezkatzuz, 2021eko otsailaren 15ean aurkeztutako idazkia. Bertan jakinarazten da, eskola publikoan eskutako paperaren kontsumoa handitu dela kontuan hartuta, udal honi paper-bobina horien kostua fakturatuko diotela, uste baitute kontratuan aurrekusi gabeko gastu gehigarria dela.

Ikusirik, Aramaioko Udalaren esku dauden hainbat eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratuaren lizitazioa arautzen duten Administrazio Klausula Berezien Agiriaren 8. atalean ("kontratua burutzea") berariaz adierazten dela kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko dela. Hori dela eta, kontratistak kontratuaren xedea den prestazioa bete behar du, eta prestazioa gauzatzeak dakartzan arriskuei aurre egin behar die. Horrela, egiten duen jardueraren abantailak eta errendimenduak jasoko ditu, eta gerta daitezkeen balizko galerek kalte egingo diote.

Ikusirik, argiagoa gera dadin, Aramaioko Udalaren esku dauden hainbat eraikinen garbiketa zerbitzua kontratatzeke Baldintza Teknikoen Pleguko "Oinarrizko zerbitzuaren ezaugarriak" puntuko A atalean, berariaz gehitu dela esleipendunak ordainduko dituela: tresna guztiak, garbiketako lanabesak (erratzak, xurgagailuak, lanbasak, etab.), garbitzeko gaiak (detergenteak, etab.), egunero kontsumitzen den komuneko papera eta bestelakoak, zein beste enpresa batzuekin kontratuak (arropa garbitzeko adibidez), eta baita material laguntzaileak ere, hala nola eskailerak, aldamiok, segurtasun uhalak eta derrigorrezko gainerako bitartekoak, laneko segurtasun eta osasuneko arauen arabera.

Ikusirik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak 215. artikuluan adierazten duenez, kontratistak bere gain hartuko duela kontratua gauzatzea.

Ikusirik, Aipatutako 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak kontratistaren arrisku- eta mentura-printzipioaren interpretazio zorrotza arinduko duten mekanismoak aurrekusi ditu, soil-soilik obra publikoaren emakida-kontratueta eta zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratueta, kontratuaren oreka ekonomikoari eusteko berariazko arauditik ondorioztatzen den bezala, 258. artikuluan eta 282. artikuluan arautua.

Kontuan hartuz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 215., 258. eta 282. artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoa.

Aramaioko Udalbatzak, 2021eko otsailaren 25eko osoko bilkuran, korporazioko kide guztien aldeko botoarekin, **EBATZI DU:**

Lehenengoa.- Kontratistari jakinaraztea, kontuan hartuz, sektore publikoko kontratuei buruzko araudia, kontratazioa arautzen duten klausula administratibo eta teknikoaren pleguak, kontratistak bere gain eta kontura burutuko duela kontratuaren exekuzioa. Hori dela eta, kontratistak kontratuaren xedea den



prestazioa bete behar du, eta prestazioa gauzatzek dakartzan arriskuei aurre egin behar die. Horrela, egiten duen jardueraren abantailak eta errendimenduak jasoko ditu, eta gerta daitezkeen balizko galerei aurre egin beharko die. Hori dela eta, pleguetan berariaz aurreikusitako gastuak bakarrik ordainduko ditu udalak.

Bigarrena.- Interesdunari jakinaraztea ebazpen hau, eta adieraztea haren aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dezakeela, hilabeteko epean, alkatetza honen aurrean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezakeela, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan.”

Besterik gabe, alkate andreak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Zerbitzuen Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

5. MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZKO ADIERAZPENA.

Datorren martxoak 8a gainean dugun honetan, alkateak irakurtzen du udaleko berdintasun teknikariak eta herriko emakumeen taldeak elkarlanean landutako adierazpena. Adierazpenak, hitzez hitz, horrela dio:

“MARTXOAK 8- EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

la urtebete daramagun pandemia batek markatutako martxoaren 8ko urte honetan, Mugimendu Feministaren aldarrikapenak nabarmenagoak egin dira edo modu argiagoan azaldu dira herritar guztientzat: pertsonak interdependentek gara eta bizirik irauteko zainketen beharra dugu. Horregatik, urteetako "bizitza erdigunean jartzea"-ren aldarria, bizitzea merezi duten bizitzak izateko, batez ere, prekarietatea alderdi guztietan gero eta handiagoa denean.

Krisi-egoera hau iraganeko konpondu gabeko beste krisi batzuekin nahasten da, hala nola ingurumenarekin, ekonomiarekin, jendartearekin, zaintzekin eta abarrekin, non bizi garen sistema kapitalistak indibidualismoa eta bizimodu duinak, bidezkoak eta komunitarioak sortzeko aukeratik urrun dagoen kontsumo-eredu bat bultzatzen dituen. Hori dela eta, premiazkoa da politika publikoak ikuspegi feministatik egitea; izan ere, bertatik jasotzen dira pertsonen aniztasuna, abiapuntu askeenak eta gizarte jasangarri bat eraikitzeke klabeak.

Feminismoak hamarkada asko eman ditu egungo eredu sozioekonomikoak jendarteari dakartzkion ondorioei buruz ohartarazten, eta zalantzarik gabe, ondorio negatiboak emakumeek eta neskek jasaten dituzte, eta modu gogorragoan, berriz, LGTBIQ+ kolektiboko emakume arrazializatu eta migratuek, dibertsitate funtzionalak dituztenek eta abarrek.

Baina emakumeek bizi duten diskriminazio anitz egoera hori ez da gertaera berritzailea; horregatik, pandemia aurreko egoera ere ez da begiratu behar dugun ispilua.

Errealitate horren aurrean, politika publikoak egokitu egin behar dira eta estrategiak bilatu behar dira diskriminazio mota guztiak ezabatzeke, gizateriaren erdiek, emakumeek, gizonen aukera berberak dituztela baliabideak eta zerbitzuak eskuratzeko bermatuz. Pertsonen bizitzak erdigunean jarriko dituzten neurriak bultzatzeko, erakunde publikoen antolaketa-kultura eraldatzeko eta berdintasunaren irudikeria gainditzeko. Horrela, emakumeek aukera izan dezaten izan, sentiitu eta libre bizitzeko.

Aramaioko Udalak gure erantzukizun sozial eta politikoa onartu behar du berdintasunezko jendarte baten eraikuntzan, politika feminista transbertsalak diseinatuz, errotik eraldatuko dutenak eta eremu guztietan eragingo dutenak.

Horregatik guztiagatik, konpromiso hauek hartzen ditugu:

LEHENENGOA.- Berdintasun egiturari baliabide ekonomikoak ematen jarraitzea, berdintasun-politikak eta indarkeria matxistaren aurkako politikak garatzeko.

BIGARRENA.- Emakumeekin eta mugimendu feministarekin elkarrizketarako espazioak bultzatzen jarraitzea.

HIRUGARRENA.- Emakumeen ahalduntzea bultzatzen duten ekintzak garatzen jarraitzea.

LAUGARRENA.- Generoaren araberako eraginari buruzko txostenak garatzea beharrezkoa den udal araudi, programa eta zerbitzuetan

BOSGARRENA.- Genero ikuspegiaren zeharkakotasuna sakontzen jarraitzea udal arlo eta jarduera guztietan.

SEIGARRENA.- Akordio honen berri ematea herritarrei.

Horregatik guztiagatik, dei egiten diegu herritar guztiei martxoaren 8 honetarako Mugimendu Feministak egingo dituen mobilizazio deialdietan parte har dezaten.”



Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak hitza hartu eta proposatzen du, EUDELen martxoaren 8rako landutako adierazpena onartzea. Gehitzen du, bertan alderdi guztiek adostutako testu bat dela. Adierazpenak horrela dio, hitzez hitz:

“ZAINZTA BERDINTASUNEAN. Emakumeen egitekoa Pandemian eta zaintzaren Krisi Globalean.

Dimentsio askoko krisi sistemikoan gaude, zeina gurutzatu eta erlazionatu egiten baita aurretik zeuden beste krisi batzuekin; esaterako, ekologikoa eta zaintza-arlokoa. Pandemiak agerian utzi ditu mugimendu feminista eta emakumeen kolektiboak egiten ari ziren zenbait aldarrikapen: giza bizitza zaurgarria da, eta giza ingurunearen, ingurumenaren eta ingurune komunitarioaren zeharo mendekoa. Ezerk ez du garrantzi handiagoa izan behar bizitza zainzta bako bako, pandemia dela-eta muturreraino prekario bihurtu eta ahuldu den bizitza.

Gaur, martxoak 8, Emakumeen nazioarteko egunean, pandemiak eta haren kudeaketak baldintzatutako urte honetan, aintzat hartu beharra dago emakumeek pandemia eta beraren ondorioak borrokatzeko mundu osoan egindako ekarpena. Zaintzaren ardura emakumeei egokitu zaie, bai zerbitzu publikoetan (osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, merkataritza eta elikadura...) bai etxeen barruan, eta batez ere haiek eraman dute krisi sanitario eta sozial honetan funtsezkoak izan diren zerbitzu askoren zama. Emakumeen artean ere banaketa desorekatua da, klase sozialaren, arrazializazioaren eta migrazio-estatusaren arabera. Gainera, kasurik gehienetan egoera prekarioan egindako lanak dira.

Berdintasunik gabeko banaketa horrek, gainkargaz gain, eta hark emakumeen osasunari eta bizi-kalitateari dakartzkien ondorioez gain, zaintza-sistemaren prekaritatea ere azaleratu du, eta lehendik ere bazeuden desberdintasunak areagotu ditu. Gure gizarte-ereduak familiaren, eta, neurritz kanpoko proportzioan, emakumeen esku uzten ditu zaintza gehienak, bai ordainpekoak bai ordaingabeak; oso gutxi ematen dira eremu publikoan. Bestalde, egoera eta estatus okerreneko emakumeek (guraso bakarreko familien buruak, behartsuenak, kolektibo zaurgarrietakoak, indarkeria matxistaren biktimak...) neurri handiagoan jasaten dituzte zaintza-zamaren ondorio negatiboak.

Ondorioz, gizarteak bere aitortzea adierazteko moduak konpromiso irmoa izan behar du, berdintasunik gabeko banaketa bidegabe horri euskarria ematen dioten genero-arrakalak borrokatzeko konpromisoa. Desberdintasun horiek agerikoak dira emakumeek funtsezko zerbitzuetan egiten duten lanaren baldintzen prekaritateari begiratuz gero. Bada garaia zaintza-lan guztiei dagokien balioa emateko, eta aurrera egiteko erantzunkidetasun handiagoko eredu baterantz, pertsona guztientzat ekitate eta ongizate handiagoa sortzeko.

Udalak gaude lehen lerroan, pandemiari eta hark pertsonengan dituen ondorioei aurre egiten, eta liderrak izan behar dugu zaintzari eta haren hornikuntzari buruzko politika publikoak bultzatzeko orduan, erantzunkidetasun publikotik abiatuta, eta arreta emanaz gizon eta emakumeen baldintza eta inpaktu desberdinei.

Erakundeok koordinatuta egoten jarraitu behar dugu, eta bideak zabaldu behar ditugu herritarrek, eta bereziki mota askotako emakumeen kolektiboek eta mugimendu feministak, benetan eta modu eraginkorrean parte har dezaten erabaki publikoetan.

Horregatik guztiagatik, Udal honek, bere eskumenen esparruaren barruan, honako konpromisoak hartzen ditu:

- *Gizarte zaintza antolatzeke ereduari buruzko eztabaida bultzatzea eta eztabaida horretan buru izatea, bizitza erdigunean jartzean oinarritzen den ikuspuntu feminista batetik abiatuta, zaintzaren erantzunkidetasun sozial eta komunitarioaren bidean.*
- *Analisisa egitea, genero-ikuspuntutik, kolektibo zaurgarrienen egoerari eta beharrezan buruz, baita COVID-19aren ondorioei buruz ere, eta horiei aurre egiteko premiazko neurriak martxan jartzea.*
- *COVIDaren krisiaren eragina arintzeko onartzen diren neurri guztietan genero-ikuspuntua gehitzen dela bermatzea, laguntzez eta babes-programez den bezainbatean.*
- *Konponbide bideragarriak aztertzea eta ezartzea adingabekoen eta mendekotasuna dutenen zaintzari laguntzeko tokiko zerbitzuentzat, zaintza baldintza duin eta bidezkoetan egin dadin saiatuz edo/eta erraztuz, bai ematen duenarentzat bai jasotzen duenarentzat ere.*
- *Udalen Berdintasun-plangintzetan, espresuki azpimarratzea emakumeen ahalduntzea, zaintzaren balioa, eta hari dagokionez gizonek duten erantzunkidetasuna.*
- *Berdintasuneko tokiko politikak garatzeko eta genero tokiko politika guztietan zehar-lerroa izateko erabiltzen diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak sendotzea eta babestea.*
- *Tokiko zaintza-sare komunitarioei babesa ematea.”*

Bi adierazpenak osagarriak direla ikusita, lehenak bertakoarengan azpimarra egiten duela batez ere eta, bigarrenak, aldiz, orokorragoa dela ikusita, bertaratutako zinegotzi guztiek erabakitzen dute, aho batez, bi adierazpenak ONARTU ETA BERE EGITEA.



6. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak galdetzen du 2021erako aurrekontua noiz izango den prest.

Alkateak erantzuten dio, hurrengo bilkuran eztabaidagai izango dela aurrekontua.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.